



LIBURUA

Zer nazka!



DANI BLANCO

HASERREA IÑIGO ASTIZ IKASELTAR

XABIER ETXANIZ ERLE

“Inurriak... zer nazka” dio liburu honetako neska protagonistak hasieran. Paisaia nahiko bukolikoan katiuskak eta txamarra horia dituen neska ikusten dugu, paseoan, eta bere inguruan hainbat animalia daude: katagorri bat eta xoxoa zuhaitzean, erbia erdi ezkutuan... eta lurrean meriendako hondarrak hartzen ari diren inurriak.

Inurri hauek ematen dioten nazka neskari, denak beltzak eta berdinak omen dira. Eta zer egiten du neskak inurri horien kontra? Zanza-zanza zapaltzen ditu batzuk. Horrek, jakina, inurrien haserrea sorrarazten du eta beltz diren inurriak aurpegi gorritz agertzen hasiko zaizkigu, hasieran bat bakarrik, gero batzuk eta amaieran denak. Inu-

rriek, orduan, neskari eraso egin eta oinetatik aurpegiraino egingo diote kosk.

Haserre dauden inurriek beren ohiko kolorea eskuratuko dute eta beren lanetara itzulita diote “haserretzen direnean, umeak jasanezinak dira. Guzti-guztiak dira berdin-berdinak”. Liburua amaituko da esaldi honekin: “Umeak... zer nazka!”.

Egitura itxia du liburuak, haurren ikuspuntutik abiatuta inurrienera iritsiko gara. Kasu bietan, “zer nazka” diotelarik, paralelismoa erakusten zaigu bien artean. Izan ere, dena dago ikusten dugunaren eta besteekiko dugun (edo ez dugun) enpatiaren arabera.

Haserrea liburu sinplea da, itxuraz, oso testu gutxirekin eta ilustrazio argi eta koloretsuekin, mezu argia helaraz-

ten diguna. Alde horretatik, aipagarria da Iñigo Astizen testu ekonomia, oso hitz gutxi –eta egitura errepikakorrekin– ederki lortzen du mezua helaraztea; eta Leire Salaberriaren ilustrazioen lana. Kolore pastelak erabiliz, trazu argiaren bidez, ingurua zainduz, ederki lortzen du protagonistetan fokalizatzea ikuslearen arreta, garrantzitsuena ederki islatuz.

Liburu hau, zalantzarik gabe, proposa izan daiteke kontu askori buruz hitz egiteko –beldurra, haserrea, amorrua, mendekua,...– eta horixe da, hain zuzen, argialetxe honen helburua; baina, baita ere, liburuak proposa da bertan agertzen zaigun istorio sinplearekin gozatzeko. ●